

## ZARAUTZ



**Bazkari herrikola.** AEK eta EHEK antolatuta XXXIII. bazkari herrikoa Musika Plazan egin zen eguzkipean eta jendetza elkartu zen urtero bezala ikus dezakegunez. :: AMAXKAR



**BANDtzaldia.** Erromeria eta AIKO Taldeko dantzatzeko musika batzen dituen kontzertua da BANDtzaldia eta arrakasta izan du gurean ikus daitekeen bezala. :: AMAXKAR

## Herriko taldeen jaialdia gaur iluntzean

Euskal Asteak aurrera jarraitzen du asteburuan zehar izandako ekimen arrakastatsuak atzean utzita

### :: JUAN MARI ZUBIAURRE

ZARAUTZ. Euskal Asteak aurrera darrai eta gaur herriko taldeen jaialdia ikusgai izango da iluntzeko 20:00etan hasita Lege Zaharren enparantzan.

'Gerezi garaiak' izenburupean bertan arituko dira Montetxio korus, Alproja Antzerki Taldea, Jalgi Dantza Taldea, Goizeko hintza Txistulari Taldea, Aratz Olaizola, Olatz Leturiaga, Martin Ostolaza, Aitor Amilibia, Eneritz Aulestia eta Ainhoa Grayar, Arranoko Salsa Taldea, Moxian Bertso Eskola, Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' eta Mixel Gorrotxategi. Eguraldiak lagunduko ez baluke Modelo Aretoan izango da.

Etenik gabeko asteburua izan dugu pasa berria. Larunbateko Euskal

Jai Egunaren starian ekitaldi ugari prestatzen dira eta besteak beste hainbat txapelketa (bihar xehetasunak ezagutzera emango ditugu), bazkari herrikoa AEK eta EHEK antolatuta eta jendetza biltzen duena urtero Musika Plazan (eguraldiak keinu bat egin zion euskal zaleei), kalejira aldarrikatzailea, Bandtzaldia eta txosna-guneko kontzertuak.

### Asteburu mardula

Igandean Haurren Euskal Jaik dantzari asko elkartu zituen eta herriko txikiak egun zoragarria igaro zuten goizetik iluntzera. Aipagarria Udak Bandak eta Aiko taldearen saioa, arrakasta handikoa eta errepikatzen modukoa. Ikusmin handia sortu zuen eta parte hartze zabala.



**La Jodedera.** Txosna gunean jendeak ondo pasatzeko aukera eman zuten Rafa ezagunarekin. :: AMAXKAR